

## » TELEGRAMA

Uztailaren 14tik 17ra martxan da **Hondarribiko Blues Festibala**: Gipuzkoako kostaldeko udako klasikoa bihurtua da jaialdia. Aurten Henry Gray piano-jotzailea omenduko dute *STOP* Sra. Polaroiska taldeko kideek **Ulrike Ottinger** zinemagilea elkarrizketatuko dute Donostian uztailaren 16an. Tabakalerako Z aretoan 18:00etatik aurrera entzun ahal izango dira Alemaniako zinema berriaren ikur den artistaren gogoetak *STOP Freak* zinema gustatzen? Gasteizko Artiumek doako B serieko filmak eskainiko ditu uztailaren 15etik 17ra bitartean *STOP*

## » DISKOA

## Gora gazteria askatuta



Iker Barandiaran



### Hamen BELAKO

Mushroom Pillow / Belako Records

Asko pozten naiz Mungia-ko laukoteak kotoiaren proba gainditu duelako. Taldea sortu eta estreinako lana kaleratu berritan, apenas urte eta erdira, bitsa balitz bezala altxa ziren publikoaren kienelatan, baita kritikaren berbetan ere. Orduetik Espainiako Estatuko jaialdi guztiek nahi dituzte karteldegian eta partaideen ikasketek baimendu ahala han eta hemen jotzen dihardute ia etenik gabe. 2013an, adin nagusitasuna eskuratu berri, kaleratu zuten *Eurie* eta sorpresa ederra izan zen: freskoa, revivalista, gaztea eta, batez ere, lotsagabea... baina funtsarekin eta esateko gauza askorekin. Zuzenekoetan ere –gehiene-tan– hala aritzen ziren: esperimentatuz, lengoaia propioa eraikiz, eta batez ere disfrutatzen eta lehertzen. Orriotan jaso nuen lana goraiatuz eta etorkizunak emango zuenaren esperantzaz, baina betiere azkar igotzen den bitsaren permanentziaz kezkatu.

Orduetik iraupen laburreko bi lan auto-ekoitzi dituzte: *Bele beltzak baino ez* eta *AAAA!!!!*, biak 2014an, eta beraien kabuz. Bi lan horiek ilunak dira, introspektiboak, eta 80ko hamarkadako new-wavetik urrunduta zaplaztekoa eman zieten Mungia-ko talde revivalista hutsa zela esaten zuten guztiei. Bi lanok erakutsi zuten Josu Ximun (batez ere) eta Lore Nekane Billelabeitia, Cris Li-

zarraga eta Lander Zalakainen burmuinak pil-pilean daudela.

Orain ardi-azala duen disko luze berria kaleratu dute: *Hamen*. Ardi-azal diot, abestiak amableagoak direla dirudien arren amorru eta eztanda egiteko gogo asko gordetzen (eta ateratzen) dutelako. 10 kantuk, ohi duten moduan ingelesean, euskarazko bakarra eta bertsio bat. Diskoari hasiera ematen dion *Fire alarmek* asko dauka taldearen izaeratik: baxu potentea, sinteak, 80ko hamarkadako elektroa eta psikodelia. *Guk eman ez* Alemanian jaio, noise eta grungetik edan eta elektro-rock basati eta kaotikoan hiltzen da. *Off your shoes* garagea da, zati epikoak uztartuz riot grrrl noisea ere badena, zapalgailua. Letaginak atera ostean, dantzarako tarte zabal-tzen da: *Key* elektro-etnikoa da, gero eta organikoagoa eginez hit!a bilakatuz. *Nomad* ere hit!a da, ia souletik abiatuta Pixies talde handiak gorpuztu eta tribalista bihurtzen dena. Pixies ikurra da, eta berari zor dio arima *Track seik* ere.

*Mum* taldearen aspaldiko dantza-arma da, baina hau bertsio lasaigoa dugu; eta *Something to adore* ur azpiko baleen dantza da, ia orkestrala. Itsasotik alden-du gabe, *Hegadun baleak* euskarazkoak hondarreko rocka dakar gogoan distortsio eta indar handiarekin. Azken txanpan, *Crimek* El Inquilino Komunistaren noise-rock dotorea ekarri dit gogora eta *Simmermanek* dauka Nina Simonen basakeri propioa eta Felix Da Housecaten kadentzia. ■

Belako talde mungiarra 2011n eratu zen.

